

HIRIGINTZAKO IZAPIDEAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA.

Kontsulta, entzunaldia eta informazio publikoa.

Udalaren nahia da ordenantza fiskal bat onartzea hirigintzako izapideak egiteagatiko tasak arautzeko.

Urriaren 1eko, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkidearen 39/2015 Legearen 133. artikuluan aurrez ikusitakoaren arabera, arauak sortzeko prozeduran hiritarren parte hartze hobetzeko asmoz, ordenantzaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi dituzten arazoak.
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbide arautzaile eta ez arautzaile posibleak.

Dokumentu honen helburua da horri erantzutea, eta hirigintzako izapideak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren proiektuaren behin betiko testuaren gaineko alde z aurreko kontsultarako oinarri izatea, halako moduz non arauaren hartzaile izan daitezkeen pertsonak eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten posta elektronikoko honen bidez: bera@bera.eus.

ALDIAREN HASIERA: 2022-12-20.

ALDIAREN BUKAERA: 2023-01-03.

Hirigintzako izapideak egiteagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza fiskalaren proiektua.

Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 100.1 artikulua arabera, toki entitateek tasak ezarri ahalko dituzte beren eskumeneko zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduerak egiteagatik. Artikulu bereko 2. puntuak adierazten du tasaren zergapeko egitatea izan daitekeela zerbitzu publiko bat ematea edo toki-eskumeneko zuzenbide publikoko araubidean administrazio-jarduera bat egitea, subjektu pasiboari modu partikularrean erreferentzia egiten diona, eragiten diona edo mesede egiten diona, baldin eta, besteak beste, inguruabar hau gertatzen bada: administratuek borondatez eskatu edo jasotzekoak ez izatea; ondorio horietarako, ez da borondatezkotzat joko eskaera edo jasotzea, lege- edo erregelamendu-xedapenek hala ezartzen dutenean.

3. puntuaren arabera, administrazio-jarduerak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragiten diola ulertuko da, baldin eta zuzenean edo zeharka subjektu pasiboak eragin badu, haren egite edo ez-egiteek toki-erakundeak behartzen dituztelako ofizioz jarduerak egitera edo zerbitzuak ematera hirigintza-arloko arrazoiengatik.

Eta 100. artikulua 5. puntuan ezartzen da toki-erakundeek tasak ezarri ahal izanen dituztela toki-eskumeneko zerbitzuak emateagatik edo administrazio-jarduerak egiteagatik, eta, bereziki, honako arrazoi hauengatik: «h) Lurzoruari eta hiri-antolamenduari buruzko legeriak eskatzen dituen hirigintza-lizentziak ematea edo kontrolerako administrazio-jarduerak egitea, lizentzia-eskaeraren ordean erantzukizunpeko adierazpena edo aldean aurreko jakinarazpena aurkeztea eskatzen den kasuetan».

Hirigintza-espedituentzako izapidetzeak zenbait gastu eragiten dizkio Udalari (txosten teknikoak, prentsako argitalpenak, etab.), eta beharrezkotzat jotzen da gastu horiek izapidetutako obraren edo hirigintza-espedituentzaren onuradunari jasanaraztea. Eta horren helburua da Udalak behar adina baliabide izatea indarrean dagoen legeriak ezartzen dizkion zerbitzuak emateko, baita Udaltzaren bere eskumenen esparruan erabakitzen dituenak emateko ere.

Bere onespeneraren beharra eta aukera.

Tasa arautzen duen ordenantza onartzea beharrezkoa, komenigarria eta egokia da Udalaren baliabideak handitu ahal izateko, herritar guztiek Udaltzari eskatzen dizkion kalitateko zerbitzuak emateko.

Arauen helburuak.

Helburua da hirigintzako izapidetzeak egiteagatik tasak sortu eta arautzea.

Ordezko konponbide arautzaile eta ez arautzaile posibleak.

Ez da aurkitu ezarri nahi den ordenantza fiskalaren ondorioak ordezka ditzakeen bestelako irtenbide arautzaile edo ez-arautzaileak.

Beran, 2022ko abenduaren 19an.

DIGITALKI IZENPETUA. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.